

EMAZTE ETA

GIZONEN

ARTEKO

BERDIN-

TASUNA

IPAR

EKINTZA PLANA

EUSKAL

HERRIAN



Communauté
d'AGGLOMERATION
PAYS BASQUE

EUSKAL
HIRIGUNE
Elkargoa

AURKIBIDEA

Lehendakariaren hitza	4
Ekintza planaren sarrera	5
Tokiko bizitzan emazte eta gizonen artean berdintasuna izateko europar gutuna	6
Irakurketa gida	7

ELKARGOAREN LANGILEAK ETA HAUTETSIAK	8
Urteko txostena egitea zerbitzuetan berdintasunak duen egoeraz	8
Langileek berdintasun gaiari loturik dituzten nahiak zerrendatzea	8
Hautetsiak emazte-gizonen arteko berdintasunaz ohartaraztea	9
Berdintasunaren gaia langileen formakuntzan sartzeari	9
Nor bakoitzaren bizitza pertsonalaren eta lan bizitzaren arteko lotura erraztea	10
Emazte-gizonen arteko berdintasuna sustatzea EHEaren ordezkartzean	10
EHEak langileak kontratatzean berdintasuna bultzatzea	11

POLITIKA PUBLIKOAK	12
Lurraldean sexuen araberako datuak biltzea	12
Berdintasunaren gaian ekimen berritzaileak atzematea	12
Elkargoaren politika publikoen onuradunen sexuen araberako egoera akta egitea	13
Partzuerrak eta enpresak berdintasunaz ohartaraztea	13
Kide diren herriak ohartaraztea	14
Berdintasunaren dimentsioa sartzeari elkargoaren politika publikoak eta programak prestatzean	15
Berdintasunaren dimentsioa sartzeari elkargoaren politika publikoak balioztatzean	15
Berdintasunaren dimentsioa sartzeari elkar aditzeetan	16
Emazte-gizonen arteko desberdintasunen aurkako borrokaren gaiari buruzko proiektu deialdia sortzea	16

KOMUNIKAZIOA	17
Estereotipoen aurkako komunikazio plana plantan ematea	17
Emazte-gizonen berdintasunari buruzko lurraldeko mintzaldi zikloa plantan ematea	17
Emazte-gizonen berdintasunaren aldeko ekitaldiak antolatzea	18

EKINTZA PLANAREN JARRAIPENA	19
Jarraipen batzorde bat plantan ematea	19

LEHENDAKARIAREN HITZA

Berdintasunaren nozioak egituratu beharko lituzke giza harremanak. Alta, egin diren borrokek eginik ere, aitzinatu dena aitzinaturik ere, desberdinkeriak hor ditugu oraindik emazte eta gizonen artean. 21. mendearen hastapen honetan, lan berdinen ordainez emazteek gizonak baino gutxiago kobratzen dute eta pobrezia gehiago jotzen ditu haiek gizonak baino; eta politikan ere parekotasuna oraindik helburu bat da, baita Euskal Herrian ere.

Euskal Elkargoa lurraldeari bere etorkizuna pentsatu eta eraikitzeke baliabideak emateko sortu da. Hortik goiti, garapen iraunkorrako baten eredu baterantz garamatzaten eta desberdinkeria guztiei aurka egiteko aukera emanen dizkiguten politika publikoei ekin diegu.

Aho batez onartu dute elkargoaren hautetsiek tokiko bizitzan emazte eta gizonen artean berdintasuna izateko europar gutuna; horrenbestean berretsi da berdintasuna Euskal Elkargoaren printzipio sortzaileetako bat zela.

Elkargo hautetsiak eta udal hautetsiak, sindikatuen ordezkariak, Garapen Kontseiluarenak eta EBA koordinazioaren barnean bildu elkarteena biltzen dituen batzorde bat aritu da, gero, zenbait hilabetez, emazte eta gizonen arteko berdintasunerako Ipar Euskal Herriaren ekintza plana prestatzen.

Asmo handiko bide orria ezarri zaigu. 20 ekintza gauzatzea aurreikusten du planak, gure Euskal Elkargo hau eredugarri bilakatzeko helburuarekin, hala barneko funtzionamenduan nola komunikazioan eta bere politika publikoak prestatzean.

Planaren gauzatzea eraginkorra izan dadin datu fidagarrietan behar dugu oin hartu, errealtatea ezagutu behar dugu. Horretarako, 2019an, Euskal Elkargoak bere zerbitzuen barnean emazte eta gizonen artean den berdintasun mailari buruzko bere lehen txostena egin du. Horren ondoren, errealtate hori «ezagutzera eman» behar dugu, horretaz jabe gaitzen eta ez gaitzen ezjakintasunaren estakurupan gorde. Azkenik, Emazte eta gizonen arteko berdintasuna politika publikoen muinean emanen dugu, ekintza hitzetatik haratago joan dadin.

Gure soa aldatu behar dugu ere eta gure gogoetak eta ekintzak kutsatzen dituzten estereotipoen aurka egin. Hartara, Euskal Elkargoak estereotipoen aurkako komunikazio plan bati ekinen dio eta berdintasunaren aldeko proiektu berritzaileak sostengatuko ditu.

Berdintasunaren aldeko borroka gu guztion duintasunaren aldeko borroka dugu.

JEAN-RENÉ ETCHEGARAY

Euskal Hirigune Elkargoaren lehendakaria.

EKINTZA PLANAREN SARRERA

Tokiko Bizitzan Emazte eta Gizonen arteko Berdintasunerako Europar Gutuna hastapen beretik eta aho batez bozkatu zuen Euskal Hirigune Elkargoak eta horrenbestean bere erantzunkizunei heldu zien! Argi utzi du alor horretan ez garela jadanik ohiko diskurtsoen garaian, ezpada emazteek bizitza publikoan gehiago izan daitezen bultzatzeko eta desberdinkeriak murrizteko ekintza zehatzak gauzatzeko garaian!

«Gizonak aske eta eskubideetan berdinak sortzen dira» dio 1789ko Gizonen eta Herritarren Eskubideen Adierazpenaren lehen artikulua; gizonak agian, baina iraultzaileek beraiek ere emazteei berdintasun guztia kendu zieten eginetan, eta bizitza osorako adin txikiko bilakatu zituzten... Olympe de GOUGES urkaberak igo zen «Emaztea aske sortzen da eta eskubideetan besteen berdin egoten...» erratan ausartu zelako!

Harrezkero, denborak aitzin egin du, legeak eman dira, baina 1946 arte igurikatu behar ukan genuen emazteek bozka ahal genezan, eta luzeago oraindik herritar eskubide guztiak eskuratu arte. Guztiarekin ere, hainbat eta hainbat desberdinkeria bizi dugu oraindik; lurralde honetako gizakien % 52k gainerako %48koek baino onarpen gutxiago dute, 21. mendearen hastapen honetan izanik ere!

Eta horretaz guztiaz inor ez da erantzule sentitzen, noski... halabeharrez gertatu delakoan edo, emazteen beraien erruz edo, legeak gaizki eginak direlako edo, xantza faltaz bestela, horren aldatzeko denbora behar dela edo... eta, dudarik gabe, BAINA etengabeko horrenatik, behin eta berriz kontrajartzen dizkiguten bost hizki horienatik! «Emazte batek, gizon baten gaitasun berdinak ukanez lansari berdina behar luke, noski, baina...»; «parekotasunaren alde naiz, noski, baina...»; «Berdintasunak etxeko lanak partekatzea dakar, noski, baina...»...

Asmo handiko ekintza plana plantan ematea erabakiz, Ipar Euskal Herriko hautetsiek ezinbesteko hori uzkailli nahi dute eta gure lurraldea eredu arrakastatsua bilaka dadin tokiko bizitzan emazte eta gizonen arteko berdintasunaren alde! Deus ez da nahitaez erraz izanen, baina asmo politiko sendoa erakutsi gabe deus ez da inoiz egiten ahalko!

Aurkezten dugun planak genero estereotipoen aurka egiteko xedea du lehenik eta behin; kultura partekatua sortu nahi du, orekak sortu eta politika publiko guztiak haietan blai egin daitezen. Azkenik, euskal gizarte osoaren akuitlatzaile da ere, partaidetza batez egin baita; horren kariatara, eskerrak eman behar dizkiegu EBA koordinazioari, Garapen Kontseiluari eta parte hartu duten hautetsi eta sindikatuei.

Bide eder bat irekitzen zaigu. Irmoki beharko diogu oraindik ekin ekintza plana gauzatzeko, biziartzeko, baina hartu dugun engaiamendu serioa funts dugularik, «BERDINTASUN» hitza «BAINARIK» gabe idazten ahalko dugu!

«Frantziar iraultza bururatu eta giza iraultzari ekiteko agindua duen mende honetan, sexuen arteko berdintasuna gizakien berdintasunaren parte da» Victor Hugo

MARTINE BISAUTA

Trantsizio Ekologiko eta Energetikoaren & Herritar Elkargoaren arduradun lehendakariordea

TOKIKO BIZITZAN EMAZTE ETA GIZONEN ARTEAN BERDINTASUNA IZATEKO EUROPAR GUTUNA

2017KO UZTAILAREN 21EAN, ELKARGO KONTSEILUAK AHO BATEZ ONARTU ZUEN TOKIKO BIZITZAN EMAZTE ETA GIZONEN ARTEAN BERDINTASUNA IZATEKO EUROPAR GUTUNERA LOTZEA.

EUSKAL ELKARGOAK, 2017KO IRAILAREN 15EAN IZENPETU ZUEN TOKIKO BIZITZAN EMAZTE ETA GIZONEN ARTEAN BERDINTASUNA IZATEKO EUROPAR GUTUNA, ZEINAREN PRINTZIO NAGUSIAK HONAKO HAUEK DIREN:

- ▲ Emazte-gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubide gisa baieztatzea.
 - ▲ Bereizkeria mota guztiak kontuan hartzea eta haien aurka borrokatzea.
 - ▲ Erabakiak hartzen diren leku guztietan emazteak eta gizonak modu zuzen eta orekatuan izan daitezela.
 - ▲ Genero estereotipoak ezabatzea.
 - ▲ Berdintasunaren dimentsioa Euskal Hirigune Elkargoak garatzen dituen jardun guztietan sartzea, hala enplegatzaile gisa egiten dituenetan nola, aginduen emaile den bezainbatean, zerbitzu emaile, antolatzaile... bai eta aurrekontuen prestaketan ere.
- Euskal Elkargoa, horrenbestean, ekintza plan bat prestatzera engaiatu da, bere engaiamendu hauek betetzeko asmoz:
- ▲ Erabakiak hartzen diren leku guztietan (politika, administrazioa, sindikalgintza...) emazteak eta gizonak modu orekatuan ordezkari nola partaide izan daitezela.
 - ▲ Kontuan hartzea beste bereizkeria faktoreak ere (jatorria, hizkuntza, sexu joera, uste politiko eta erlijiozkoak, ezintasun bereziak...).
 - ▲ Sexu estereotipoak ezabatzea.
 - ▲ Berdintasunaren dimentsioa sartzea elkargoak enplegatzaile gisa, agindu emaile gisa, zerbitzu emaile, antolatzaile eta abar den bezainbatean egiten dituen jardueran, politika eta diruztapen orotan (aurrekontua ere barne).

EKINTZA PLANAREN IRAKURKETA GIDA

EKINTZA PLANA 4 ARDATZEN INGURUAN GAUZATZEN DA:

BARNE FUNTZIONAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDU POLITIKOA.

Emazte eta gizonen arteko berdintasuna kontuan hartzea giza baliabideen kudeaketan eta lanaren antolakuntzan, bai eta parekotasuna betetzea elkargoaren instantzia politikoetan eta Euskal Elkargoaren ordezkartzen.

POLITIKA PUBLIKOAK.

Emazte eta gizonen arteko berdintasuna elkargoaren 21 politika publikoen erdi-erdian, haien prestaketatik hasi eta haien gauzatze eta balioztatzerainoko guztian.

KOMUNIKAZIOA.

Estereotipoen aurka borrokatzea eta Euskal Herrian berdintasunaren kultura garatzea.

EKINTZA PLANAREN JARRAIPENA,

bai eta haren eguneratzearena, hautetsiak gizarte zibilarekin lotuko dituen partzuergo batez

EKINTZA BAKOITZA HONAKO HIRU HELBURUETAKO BATEAN KOKATURIK DA.

Dokumentu osoan zehar, piktograma batek zehazten du ekintza bakoitzaren lotura:



EZAGUTZEA

Ekintzen eraginkortasuna bermatuko duten datu zifratuak biltzeko tresnak sortu eta hedatzea.



EZAGUTARAZTEA

Informazioak parteka eta Euskal Elkargoaren partaideei ohartaraztea.



EGITEA

Bildu diren ezagutza datuak oinarri, emazte-gizonen arteko berdintasunaren aldeko baliabideak eta ekintzak sortu eta gauzatzea.



ELKARGOAREN LANGILEAK ETA HAUTETSIAK



1. EKINTZA

EUSKAL ELKARGOAREN BAITAN BERDINTASUNAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA EGITEA

TESTUINGURUA

Emazte-gizonen arteko Egiazko Berdintasunari buruzko 2014ko abuztuaren 4ko Legearen 611 artikulua behartzen ditu 20 000 biztanletik gora eta zerga sistema berea dituzten lurralde kolektibitateak eta herriarteko lankidetzarako erakunde publikoak (HLEP-EPCI) aurrekontu proiektuaren gaineko eztabaidei ekin aitzin txosten bat aurkeztera emazte-gizonen arteko berdintasun gaian duen egoerari buruz, kolektibitatearen funtzionamendua ukituz, bai eta egoera hobetzeko daramatzen politikak eta dituen orientabideak eta programak. 2015-761 Dekretuak, 2015eko ekainaren 24ko zehaztu ditu hala txostenaren edukia nola horren egiteko dagoen egutegia, betiere zehaztuz txostena aurrekontuaren gaineko eztabaidaei ekin aitzin aurkeztu behar dela.

Euskal Elkargoak 2019ko martxoaren 16ko Elkargo Kontseiluan aurkeztu zuen emazte-gizonen arteko berdintasunaren gaian duen egoeraren gaineko lehen txostena.

EKINTZAREN HELBURUAK:

▲ Euskal Hirigune Elkargoaren zerbitzuen barnean emazteek eta gizonen duen egoeraren bilakaera eratzeko estatistikak egitea, lanbidean egiazko berdintasuna bermatzeko behar diren neurriak har ditzagun.

EKINTZAREN AZALPENA:

- ▲ EHEaren barnean emazteek duten eta gizonen duen egoera erkatzen dituzten txostena egitea
- ▲ Txostena parekotasunaren instantziei aurkeztea
- ▲ Txostena Elkargo Kontseiluari aurkeztea
- ▲ Jarraipen adierazleak sortzea
- ▲ Adierazleen jarraipena bermatzea

EUROPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 11. ARTIKULUA

2. EKINTZA

LANGILEEN NAHIAK ZERRENDATZEA

TESTUINGURUA

Euskal Elkargoaren barnean emazte-gizonen lanbide berdintasuna faboratzeko behar dira ezagutu langileek bizi dituzten zailtasunak hala objektibo nola subjektiboak.

EKINTZAREN HELBURUAK:

▲ Barne funtzionamenduan izan litezkeen traba hala egiazkoak nola sentimenezkoak atzematea, bai eta emazte-gizonen arteko lanbide berdintasuna bultzatzeko langileek igurikatzen dutenaz ere ohartzea.

EKINTZAREN AZALPENA:

▲ Lanbide berdintasunaren gaiari buruz langileei galdekatzeko tresnak sortzea:

- ◊ Lanbide jardunean
- ◊ Lan bizitza eta bizitza pribatuaren arteko baterakuntzan

- ▲ Tresna horiek heda eta emaitzak aztertzea
- ▲ Atzeman diren trabei erantzuteko arropostuak eraikitzea

EUROPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 11. ARTIKULUA

3. EKINTZA

HAUTETSIAK EMAZTE-GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAZ OHARTARAZTEA

TESTUINGURUA

Hautetsiek prestatzen dituzte Euskal Elkargoaren politika publikoak; haiek dira politika horien eragile nagusiak. Horrenbestean, emazte eta gizonen arteko desberdinkerien aurka borrokatzeko ardura dute.

EKINTZAREN HELBURUAK:

- ▲ Hautetsiak emazte eta gizonen arteko berdintasunaz ohartaraztea
- ▲ Hautetsiak gaiz arduratzera bultzatzea

EKINTZAREN AZALPENA:

- ▲ Emazteen eta gizonen arteko berdintasunaren jokagaietaz ohartarazteko moduluak proposatzea
- ▲ Hautetsiak emazte-gizonen arteko berdintasunerako ekintza planaren ekintzak gauzatzera bultzatzea.

EUROPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 2. ARTIKULUA

4. EKINTZA

BERDINTASUNAREN GAIA LANGILEEN FORMAKUNTZAN SARTZEA

TESTUINGURUA

Langileek eta formakuntzek berdintasuna eta diskriminazioen kontrako borroka errokez jabetzea ekintza planaren plantan jartzearen arrakastarentzat premiazkoak dira.

EKINTZAREN HELBURUAK:

- ▲ Emazteen eta gizonen arteko berdintasunaren kultura ororen artean zabaltzea.
- ▲ Euskal Elkargoaren langile orori jakinaraztea gai horren gainean egin diren ekintzak.
- ▲ Langile bakoitzari bere eguneroko lanean ekintza planaren helburuak gauzatzeko aukera ematea.

EKINTZAREN AZALPENA:

- ▲ Langileak ohartarazteko moduluak sortu eta hedatzea (estereotipoen aurkako borroka, jendeen harrera, berdintasuna kontuan hartzea politika publikoen prestaketan, kudeaketa...)
- ▲ Gai jakin horren gainean zerbitzu eta lanbide bakoitzean, bai eta kudeaketaren alorrean dauden formakuntza beharrak aztertzea.

EUROPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 11. ARTIKULUA

ELKARGOAREN LANGILEAK ETA HAUTETSIAK



5. EKINTZA

LAN BIZITZA-BIZITZA PERTSONALAREN ARTEKO LOTURA ERRAZTEA

TESTUINGURUA

Langileei lan bizitzaren eta bizitza pribatuaren arteko lotura ona bermatzea funtsezko jokagaia da lanean ongi izan daitezen. Alor pribatuan diren desberdineriek eragiten dute lan alorrean ere desberdineriak gerta daitezten. Langileak lanean ongi izan daitezten laguntzeko, Euskal Hirigune Elkargoak aztertu behar ditu nolako baliabideak erabili behar dituen emazteen eta gizonen artean modu orekatuagoan bana daitezten batzuen eta besteen eguneroko bizitza aldien antolaketan eta guraso izateak ere modu orekatuagoan eragin dezan haien lan ibilbidean.

EKINTZAREN HELBURUAK:

- ▲ Langileen lan bizitzaren eta bizitza pribatuaren arteko lotura erraztea.
- ▲ Laneko bizitza kalitatea hobetzea.

EKINTZAREN AZALPENA:

- ▲ «Langileen nahien zerrendatzea» deitu ekintzaren barnean bildu datuak baliatuz, lan bizitza-bizitza pribatuarekin lotzeari buruzkoak zehazki aztertzea.
- ▲ Lan bizitza-bizitza pribatuaren arteko oreka eta gurasotasun partekatua errazten dituzten baliabide eta zerbitzuak gogoeta egin eta gauzatzea (teledana, enpresako atezaindegia, lanaldia zerbitzu bakoitzaren barnean egokitzeko gogoeta).
- ▲ Langileei gurasotasunaren gaiari loturik diren baliabideen berri ematea eta gurasoen eskubideak eta egiten diren hautuek lan ibilbideetan dituzten ondorioak eta abar azaltzea

EUOPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 11. ARTIKULUA

6. EKINTZA

EMAZTE- GIZONEN OREKA SUSTATZEA EUSKAL ELKARGOAREN ORDEZKARITZAN

TESTUINGURUA

2019an, emazteak % 23 ziren Euskal Hirigune Elkargoaren Elkargo Kontseiluan, % 17,3 Kontseilu Iraunkorrean eta % 16 Kontseilu Eragilean.

EKINTZAREN HELBURUAK:

- ▲ Euskal Hirigune Elkargoaren erabakiak hartzeko instantzia guztietan parekotasunaren bidean aitzinatzea.
- ▲ Parekotasuna ezartzea Euskal Hirigune Elkargoa ordezkatuak dutenak izendatzerakoan.
- ▲ Parekotasuna bermatzea Euskal hirigune Elkargoa kanpoko ekitaldietan ordezkatzeko.

EKINTZAREN AZALPENA:

- ▲ Parekotasuna antolatzea eremuetako batzordeetan.
- ▲ Elkargoak egitura sateliteetan dituen elkargo ordezkariak parekotasunez izendatzea.
- ▲ Hautetsiei dituzten eskubideen berri ematea

EUOPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 2. ETA 3. ARTIKULUA

ELKARGOAREN LANGILEAK ETA HAUTETSIAK



7. EKINTZA

BERDINTASUNA BULTZATZEA EUSKAL ELKARGOAREN LANBIDEEN KONTRATATZEAN (LANBIDE MISTOTASUNA)

TESTUINGURUA

Kontratazioa da Euskal Hirigune Elkargoak lanbideen mistotasuna bermatzeko dituen baliabideetako bat. 2019an, administrazio adarrean % 83 emazteak dira eta adar teknikoan, berriz, % 18.

EKINTZAREN HELBURUAK:

- ▲ Lanbide femenino edo maskulino deiturikoetaz diren ideiak desagitea.
- ▲ Kontratazio prozesuak berdintasunaren dimentsiotik so eginez pentsatzea.
- ▲ Laneratze baliabideen bitartez mistotasuna faboratzea.

EKINTZAREN AZALPENA:

- ▲ Kontratatzeen ardura duten langileak estereotipoen aurkako borrokan eta gizon-emazteen berdintasunean formatzea.
- ▲ Lantaldeetan mistotasunak duen garrantziaz ohartaraztea.
- ▲ Iragarrietan idazmolde barneratzailea erabiltzea.
- ▲ Kontratatzeetako epaimahaiak misto izan daitezela zaintzea

EUOPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 11. ARTIKULUA

POLITIKA PUBLIKOAK



8. EKINTZA

LURRALDEAN SEXUEN ARABERAKO DATUAK BILTZEA

TESTUINGURUA

Euskal Hirigune Elkargoak emazte eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiten duenaren eraginkortasunaren funtsa lurraldean diren desberdinkeriaren ezagutza da. Izan ere, oso garrantzitsua da berdintasunaren gaia orokorki ezagutzeaz gain tokiko mailan ere ezagutzea, egoeraz osoki ohartuko bagara. Horrela ulertze makurrak ekidinen ditugu eta estereotipoen aurka borrokatuko gara.

EKINTZAREN HELBURUA:

▲ Ekintza honek Euskal Hirigune Elkargoari lurraldeko sexuen araberako datuak emateko xedea du, bai eta elkargoaren eskumenei eta elkargoak dituen jardute ahalei loturik diren gaitan emazte eta gizonen artean diren desberdintasunak ezagutzeko.

EKINTZAREN AZALPENA

▲ Euskal Elkargoaren zerbitzuen barnean eta haren partzuerranean diren datuak biltzea.
 ▲ Datu horiek politika publikoen barnean aztertzea.
 ▲ Datu horiek eguneratzeko eta politika publikoek ukan duten eragina eta bilakaera eta horretarako gauzatu diren ekintzak balioztatze baliabidea plantan ematea.
 ▲ Datu horien hedapena bermatzea hautetsi, zerbitzu eta partzuer ororen artean.

EUOPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 9. ARTIKULUA

9. EKINTZA

BERDINTASUNAREN ALORREAN DIREN EKIMEN BERRITZAILEAK ATZEMATEA

TESTUINGURUA

Emazteen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten tokiko ekimen anitz sortzen dira urterik urte Ipar Euskal Herrian; Euskal Elkargoak, bere komunikazio eta ingeniari-tresnen bitartez, lagun dezake ekimen horien komunikazioan eta baita batzuetan kopiak egiten ere.

EKINTZAREN HELBURUAK:

▲ Euskal Elkargoaren barnean sortzea berdintasunaren aldeko tokiko ekimenak atzemateko lan taldea.
 ▲ Ekimen horiek hedatzeko tresnak plantan ematea (komunikazioa, ingeniari-tre...)...

EKINTZAREN AZALPENA

▲ Lantaldea osatzea.
 ▲ Berdintasunaren aldeko ekimenen txapelketa antolatzea.
 ▲ Garapen Kontseiluarekin, elkarteekin eta erakunde partaideekin lan egitea Ipar Euskal Herrian berdintasunaren alde ari diren berritzaileak atzemateko

EUOPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 5. ARTIKULUA



10. EKINTZA

POLITIKA PUBLIKOEN ONURADUNEN SEXUEN ARABERAKO EGOERA AKTA EGITEA

TESTUINGURUA

Euskal Hirigune Elkargoak bermatu behar du plantan ematen dituen edo diruztatzen dituen baliabideek emazte eta gizonen arteko berdintasuna zaintzen dutela eta haren alde egiten.

EKINTZAREN HELBURUA:

▲ Elkargoaren politika publikoen onuradunak sexuka nola banatzen diren jakitea.
 ▲ Baliabideak egokitzeko ahala eskuratzea

EKINTZAREN AZALPENA

EHEak plantan eman edota diruztatu baliabideen gaineko estatistikak egin daitezela bultzatzea.

EUOPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 9. ARTIKULUA



11. EKINTZA

ENPRESAK EMATZE ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAZ OHARTARAZTEA

TESTUINGURUA

Erosketa eta eskaera publikoko politikaren bidez, Euskal Elkargoak badu kontratu bidez lotzen dituen enpresetan emazte eta gizonen arteko berdintasunaren alde aritza.

EKINTZAREN HELBURUAK:

▲ Eskaera publikoetan berdintasunaren aldeko kultura hedatzea.
 ▲ Merkatu publikoen esleipendunak emazte eta gizonen arteko berdintasunaz ohartaraztea.

EKINTZAREN AZALPENA

▲ Lanbide berdintasuna merkatu publikoetan irizpide gisa sartzeaz hausnartzea (50 langiletik gorako enpresei egoera erkatuko urteko txostena edota lanbide berdintasun plana eskatzea).
 ▲ Merkatu publikoen gizarte klausulek ukitzen dituzten publikoak aztertzea.

EUOPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 12. ARTIKULUA



12. EKINTZA

ELKARGO KIDE DIREN HERRIAK EMAZTE ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAZ OHARTARAZTEA

TESTUINGURUA

Euskal Hirigune Elkargoak kide dituen 158 herriak mugiarazi behar ditu bere ekintza planaren eragina emendatzeko.


EKINTZAREN HELBURUAK:

- ▲ Euskal herriak eta hautetsiak mugiaraztea.
- ▲ Herriak beren ekintza plan berea egitera akuilatzea.

EKINTZAREN AZALPENA

- ▲ Ekintza planaren berri 158 euskal herriei ematea.
- ▲ Herri bakoitzari bere ekintza plana zehazten lagunduko dion ingeniari-tza baliabide bat sortzea.

EUROPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 5. ARTIKULUA



13. EKINTZA

BERDINTASUNAREN DIMENTSIOA SARTZEA ELKARGOAREN POLITIKA PUBLIKOAK ETA PROGRAMAK PRESTATZERAKOAN

TESTUINGURUA

Euskal Elkargoak, bere politika publikoak gauzatzuz eragin dezake berdintasunaren alde edo ohiturei lotu zenbait desberdinkeria desageraraz ditzake.

EKINTZAREN HELBURUAK:

- ▲ Erabakiak hartzeko prozesuan «Berdintasun» ikusmoldea sartzea.
- ▲ Jadanik bidean dituen jardueretan behar diren neurri zuzentzaileak ezartzea.
- ▲ Zuzendaritza eta lurralde eremu bakoitzean berdintasunaren arduradun bat izendatzea.

EKINTZAREN AZALPENA

▲ Zerbitzu guztiak emazte eta gizonen arteko berdintasunaren gaitiaz ohartaraztea eta zerbitzu bakoitzean berdintasunaren arduradun bat izendatzea.

▲ Politika publikoak prestatzerakoan erabiliko den «berdintasun» ikusmoldea sortzea.

EUROPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 8. ARTIKULUA ETA 13TIK 29 ARTEKOAK

14. EKINTZA

BERDINTASUNAREN DIMENTSIOA SARTZEA ELKARGOAREN POLITIKA PUBLIKOEN BALIOZTATZERAKOAN

TESTUINGURUA

Euskal Elkargoak Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusira zuzenean atxiki balioztapen misioa sortu du. «Emazte eta gizonen arteko berdintasunaren» dimentsioa balioztapen irizpideetan sartzeak gaia elkargoaren baliabideak gauzatzeko hasi aitzinetik kontuan hartzeko aukera emanen digu.

EKINTZAREN HELBURUA:

- ▲ Sexuak kontuan hartzen dituen dimentsioa elkargoaren politika publikoaren balioztatzeko prozesuan sartzea.

EKINTZAREN AZALPENA

- ▲ Emazte-gizonen berdintasunaren adierazle egoki eta elkargoaren politika publikoetara egokituak prestatzea.
- ▲ Hautetsiak eta zerbitzuak adierazle horietaz ohartaraztea.
- ▲ Adierazle horien jarraipena denbora luzean egitea, joeren bilakaeraren eta hautatu diren norabideen eraginaren jarraipena egin ahal dezagun.

EUROPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 9. ARTIKULUA



15. EKINTZA

BERDINTASUNAREN DIMENTSIOA SARTZEA ELKAR ADITZEETAN

TESTUINGURUA

Euskal Hirigune Elkargoak herritarrak bere politika publikoen prestatzera ekartzea erabaki du, horretarako elkar aditzea baliatuz. Elkar aditze hori eraginkor izan nahi bada, sexuaren dimentsioa hartu behar du kontuan.

EKINTZAREN HELBURUA:

▲ Euskal Hirigune Elkargoak plantan eman elkar aditze baliabideetan emazteek eta gizonen kopuru orekatuetan parte hartuko dutela bermatzea.

EKINTZAREN AZALPENA

▲ Sistematikoki behatzea Euskal Elkargoak plantan eman elkar aditze baliabideetan zenbat emazte eta zenbat gizon diren.
▲ Emazteei bereziki zuzendu elkar aditze baliabide bereziak garatzea.

EUOPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 3. ARTIKULUA

16. EKINTZA

EMAZTE ETA GIZONEN ARTEKO DESBERDINKERIEI AURKAKO BORROKAREN GAIARI BURUZKO PROIEKTU DEIALDIA SORTZEA

TESTUINGURUA

Euskal Herriko eragile eta biztanle guztiok behar dugu emazte-gizonen arteko berdintasunaren alde aritu. Euskal Hirigune Elkargoak horretarako proiektu deialdi berezia plantan emanez laguntzen du mobilizazio hori eta ekimenen hedatzea.

EKINTZAREN HELBURUAK:

▲ Lurraldeko eragileak berdintasunaren alde ari daitezen bultzatzea
▲ Emazte-gizonen berdintasuna faboratzen duten proiektuak sortzeko aukera ematea

EKINTZAREN AZALPENA

▲ Urteroko proiektu deialdia orori zabalik (enpresak, elkarteak, kolektibitateak...)
▲ Hautatu diren proiektuak gauzatzeko laguntza eta diruztapena
▲ Komunikazio tresnen bitartez, proiektuak ikusgarri egitea (hautatuak izan direnak nola izan ez direnak).
▲ Gertakarien zerrendatzea.

EUOPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 5. ARTIKULUA

KOMUNIKAZIOA



17. EKINTZA

ESTEREOTIPOEN AURKAKO KOMUNIKAZIO PLANA PLANTAN EMATEA

TESTUINGURUA

Estereotipoek emazte eta gizonen artean desberdinkeria inkonizienteki atxikiarazten diguten irudiak hedatzen dituzte. Euskal Elkargoak estereotipoen aurka egiteko komunikazio plana hedatu nahi du.

EKINTZAREN HELBURUA:

▲ Estereotipoen aurka egitea

EKINTZAREN AZALPENA

▲ Estereotipoen aurkako komunikazio plana prestatu eta gauzatea.
▲ Komunikazioaren eragileei estereotiporik gabeko komunikazioari buruzko formakuntzak proposatzea.

EUOPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 6. ARTIKULUA

18. EKINTZA

EMAZTE-GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO MINTZALDI ZIKLOA PLANTAN EMATEA

TESTUINGURUA

Lurraldeko eragileak eta biztanleak ohartarazteko asmoz, Euskal Elkargoak emazte-gizonen arteko berdintasunaren gaiaren inguruko lurralde mailako mintzaldi ziklo bat sortzen lagunduko du.

EKINTZAREN HELBURUAK:

▲ Lurraldeko biztanleak eta eragileak emazte eta gizonen arteko berdintasunari loturik jokoan ditugunaz ohartaraztea.
▲ Eztabaida piztea.

EKINTZAREN AZALPENA

▲ Ipar Euskal Herri osoan mintzaldi-etzabaidak antolatzea.
▲ Lurraldeko eragileak laguntzea mintzaldiak eta eztabaidak antolatzen.

EUOPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 6. ARTIKULUA



19. EKINTZA

EMAZTE-GIZONEN BERDINTASUNAREN ALDEKO EKITALDIAK ANTOLATZEA

TESTUINGURUA

Euskal Elkargoak dituen eskumenen eta partaidetzen bidez, emazte eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa gogora ekartzen diguten ekitaldiak sor edota sostenga ditzake.

EKINTZAREN HELBURUAK:

- ▲ Emazte-gizonen berdintasunari buruzko ekitaldiak antolatzea jende orori zuzendurik
- ▲ Elkargoaren langile eta hautetsientzako barne komunikazioko ekintzak antolatzea.

EKINTZAREN AZALPENA

- ▲ Euskal Elkargoaren politika publikoekin loturik diren ekitaldiak antolatzeaz gogoetatzea.
- ▲ Barne ekitaldi bat antolatzea.
- ▲ Emazte eta gizonen arteko berdintasunari buruzko ekitaldiak antolatzen dituztenak laguntzea.

EUROPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 6. ARTIKULUA

EKINTZA PLANAREN JARRAIPENA

20. EKINTZA

JARRAIPEN BATZORDE BAT PLANTAN EMATEA

TESTUINGURUA

Ekintza planaren gauzatzea bermatzeko, Euskal Elkargoak jarraipen batzorde bat osatuko du bere hautetsiekin eta herri hautetsiekin, EBA koordinazioaren barnean bildu elkarrekin eta Garapen Kontseiluaren eta sindikatu nagusien ordezkarekin.

EKINTZAREN HELBURUAK:


- ▲ Ekintza planaren gauzatzearen jarraipena egitea
- ▲ Ekintza plana eta ekintzen fitxak eguneratzea

EKINTZAREN AZALPENA

- ▲ Jarraipen batzordea sortzea.

EUROPAR GUTUNAREN ERREFERENTZIA: 5. ARTIKULUA





EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK EGINDAKO DOKUMENTUA
FOCH ETORBIDEA 15, 64100 BAIONA
WWW.COMMUNAUTE-PAYSBASQUE.FR

Asmakuntza grafikoa: studio Waaz
Inprimatzailea: Copytel
Itzulpenak: Bakartxo Arrizabalaga